

LITERATURA UNIBERTSALA



MARINA TSVETAIEVA

Ene anaia femeninoa

Joxe Mari Berasategi

Marina Tsvetaieva
Ene anaia femeninoa
Gutuna amazonari

Joxe Mari Berasategi

Jatorrizko izenburua:

Mon frère féminin. Lettre à L'Amazone.

1. argitalpena: 2022ko maiatzean.

- © Azaleko margolanarena: 2022, Alain Urrutia
- © Itzulpenarena: 2022, Joxe Mari Berasategi Zurutuza
- © Hitzaurrearena: 2022, Joxe Mari Berasategi Zurutuza
- © Argitalpen honena: 2022, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.

ISBN: 978-84-9109-824-9

LG: D 671-2022

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



MARINA TSVETAIEVA

1892-1941

HITZAURREA

Marina Ivanovna Tsvetaieva poeta errusiarra 1892an sortu zen, Moskun, eta 1941ean hil, Tatarstango Jela-buga-n (Moskutik mila kilometrotik goiti, ekialdera). Egun XX. mendeko errusiar literaturako idazle garrantzitsuenen artean dago. Olerkari gisa, bere suhertasunak eta hizkuntzarekin egiten zituen saiakuntza ausartek markaturik gelditu da, bere garaiaren eta izakiaren barnatasunen kronikari nabarmen moduan.

Familia burges kultu batean hezia izan zen. Amak, musikarako bikain dohaindua, piano-kontzertista karrerari uko egin behar izan zion; aitak Artearen Historia irakasten zuen unibertsitatean, eta Moskuko Arte Ederren Aleksander III.a museoa (egun Puxkin museoa) sortu zuen. Amak nahi zuen alaba piano-jotzailea izatea, berak lortu ez zuena; ez zuen onartzen Marinaren poesiarako joera. 1902an, amaren tuberkulosia sendatzeko, medikuek klima-aldaketa aholkatu zioten, eta familia osoak Italiara jo zuen, Genova ingurura. 1904an, Lausanako barnetegi batera bidali zuten Marina, ahizpa Anastasiarekin. Atzerriko egonaldi horietan, italiara, frantsesa eta alemana ikasi zituen. Amak inposatu musika-ikasketa zorrotzak baztertu eta poesiari buruz itzuli zen. Honela idatzi

zuen: “Hura bezalako ama batekin, aukera bakarra nuen: poeta bihurtzea”. 16 urtetan, literaturaren historia ikastera joan zen Pariseko Sorbonara, familiaren gogoz kontra. Urte modutsu haietan loratu zen errusiar olerkigintzan mugimendu sinbolista, Marinaren geroko obran eragina izango zuena.

Oraino lizeoko ikasle zela, bere pentzudan argitaratu zuen lehen olerki-bilduma: *Arratseko albuma*. Maximilian Voloxin poeta eta kritikariaren arreta piztu zuen, zeina harrezkero adiskide eta mentore izan baitzuen. Haren Krimeako etxean egonaldiak egiten hasi zen, Koktebel-en, Itsaso Beltzaren ondoan, beste idazle, poeta eta artista askorekin batera.

Koktebelen ezagutu zuen, 19 urtetan, Sergei Efron, akademia militarreko 18 urteko ikasle gaztea; 1912an ezkondu ziren, Marinaren aitak Arte Ederren Aleksander III.a museoa inauguratu zuen urte berean. Bikoteak bi alaba izan zituen: Alia eta Irina. Senarra maite zuen arren, harremanak izan zituen beste gizon batzuekin, tartean Ossip Mandelstam poeta eta saiakera-idazlea (*Mugarriak* bilduman ospatzen du harremana). Garai hartan ezagutu zuen bera baino zazpi urte zaharragoa zen Sofia Parnok poeta ere. Bi emazteak zeharo maitemindu ziren elkarrekin, eta harreman hark, senarra biziki haserrarazteaz gain, ondorio sakonak utzi zituen bien idazkietan. *Emazte adiskidean* oroitarazten du bien arteko harreman anbiguo bezain ekaiztsua: Sofiari batzuetan *neskalaguna* deitzen dio; beste batzuetan, *hutsegitea*.

Marina Tsvetaieva

Ene anaia femeninoa

Gutuna amazonari

Irakurri dut zure liburua. Idazten duten emazte guziak bezala zatzaizkit hurbila. Ez dakizula gaitzi *guziak* hori –guziek ez dute idazten: guzien arteko batzuek baizik ez.

Beraz, paregabeko izaki oro bezala zatzaizkit hurbila, eta, batez ere, paregabeko izaki femenino oro bezala.

Ikusi zintudan egunaz geroztik pentsatzen dut zugan –duela hilabete? Gazte nintzelarik, lehiaz izaten nintzen pentsatzeko; eta beti beldur ene baitarik partitu eta besteari buruz ninderaman uhinari pasatzen uzteko; beti beldur jada ez maitatzeko, beste deus ez jakiteko. Baina dagoeneko ez naiz gaztea, eta ikasi dut ia edozer pasatzera uzten– erremediorik gabe.

Errateko guzia ukan –eta ezpainak ez irekitzea; emateko guzia ukan– eta eskua ez zabaltzea: hori da zuk bertute burges deitzen duzun ukoa, zeina, burgesa izan edo ez, bertute izan edo ez, ene ekintzen eragingarri nagusia baita. Ukoa? –Eragingarri? Bai, zeren indar bat itotzeak ahalegin infinituki gogorragoa eskatzen baitu indar erakusketa libreak baino– zeinak ez baitu batere eskatzen. Alde horretatik, aktibitate natural oro pasiboa da, aktibitatetik (bihotz hustea –jasatea;

itotzea– amarrua) erdietsitako pasibotasun oro bezala. Zer da zailagoa: zaldi bat atxikitzea edo laster egiten uztea; eta, guhaur garenez atxikitzen dugun zaldia, zer da bietan nekagarriena: atxikia izatea edo gure indarrari jostatzen uztea? Hatsa hartzea edo ez hartzea? Gogoan duzu haur josteta hura, zeinetan kutxa baten barnean *ito arte* gelditzen zen *harentzat* izaten baitzen ohore guzia? Josteta krudela eta arras guti burgesa.

Ari izan? Laxatu. Uko egiten dudan *aldi* oroz, lurrikara bat sentitzen dut barnean. Nihaur naiz –ikaraz den lurra. Ukoa? Borroka harri bihurtua.

Ene ukoa honela deitzen da oraino: ez lehiatu –nahi izatea den ordenako deus. Den ordena, gure kasuan? Zure liburua irakurtzea; zu eskertzea nitaz hustu hitzen bidez; noiztenka zu berriz ikustea, "irritsu, irriñoa egiten ikus ez zaitzaten". Itxurak egitea zuk ez zenuela deus idatzi, ez nik deus irakurri: deus gertatu ez balitz bezala.

Egin nezakeen; egin dezaket oraino, baina, behingoan ez dut nahi.

Entzun nazazu, ez duzu zertan erantzun; ni entzun baizik ez duzu egin behar. Zauri bat daramakizut zuzen bihotzaren erdira; zure kausaren, zure sinesmenaren, zure gorputzaren, zure bihotzaren erdi-erdira.

Hutsune bat bada zure liburuan: bakarra, gaitze-koa –oharturik edo oharkabean egina? Ez dut sinesten izaki pentsalarien oharkabetasunean; are gutiago–izaki pentsalari idazleenean; eta batere ez emazte idazle-oen oharkabetasunean.

Hutsune hori, zuriune hori, zulo beltz hori...
haurra da.

Harengana itzultzen zara etengabe; maiztasuna ematen diozu zor diozun inportantziaren ordez; han eta hemen ereiten duzu; gero, haratago oraino, zor diozun oihu bakarraren entitatea ez emategatik.

Hortaz, nehoiz ez duzu oihu hau bederen entzun?
Zure haur bat ukan ahal baneza!

Eta bekaizgo hori, basatia eta bakarra munduan; gupidagabea, sendaezina den heinean; bestearekin, *normalarekin*, ezin konparatuzkoa; ama baten bekaizgoarekin ere ezin konparatuzkoa. Bekaizgo hori, haustura saihetsezinaren premonizioa; begi handi horiek zabal-zabala ezarriak beste emazteak noizbait ukan nahiko duen eta zuk, zaharrenak, eman ezingo diozun haurraren gainean. Begi horiek iltzaturik etortzekoa den haurraren gainean.

–Maitaleek ez dute haurrik ukaiten– egia da, baina hiltzen dira. Guziak. Romeo eta Julieta, Tristan eta Isolda, Amazona eta Akiles, Sigfrido eta Brunilda (balizko maitale horiek, bereiz-batu horiek, zeinen artean amodiozko batasunik eza nagusitzen baitzaio batasunik osoenari...). Eta beste batzuek... beste batzuek... bazter guzietakoek, garai guzietakoek, leku guzietakoek... ez dute astirik etorkizunarentzat, zeina haurra baita; ez dute haurrik ez dutelako etorkizunik; ez dute oraina baizik, zeina beren maitasuna eta beren heriotza baita, beti hor dena. Hiltzen dira –edo maitasuna da hiltzen dena (adiskidetasunera, amatasunera endekatzen da: Baucis emazte zaharra

bere Filemon gizon zaharrarekin; Pulkeria emazte zaharra Atanasio seme zaharrarekin– bikote izigarri bezain hunkigarriak).

Maitasuna, berez, haurtzaroa da. Maitaleak haurrak dira. Haurrek ez dute batere haurrik ukaiten.

Edo bestela –Dafnek eta Kloek bezala–, jada ez dakigu deus: bizirik irauten badute ere hiltzen dira, gugan, guretzat.

Ezin da maitasunez *bizi*. Haurra da bizirik maitasunak baino gehiago irauten duen gauza bakarra.

Eta beste oihu hau ere, egundaino ez duzu entzun? Haur bat nahi nuke gizonik gabe! Neskagazte hasperen irritsua, neskazahar hasperen lañoa, eta, are, batzuetan, emazte hasperen desesperatua:

–Nahi nuke bat soilik *enea*!

Eta hona non neska gazte irritsuak –ez baitu nahi arrotzik bere gorputzean; ez baitu nahi ez hura ez harenik; ez baitu nahi *enea* baizik–, bideko bihurtune batean kausitzen duen beste *ni* bat, *emazte* bat, zeinen beldur izan beharrik ez duen, zeinaren kontra defendatu beharrik ez duen, zeren besteak ezin baitio minik egin, norberari minik egin ezin zaion gisan (ez bederen gaztetan). Ziurtasun bat denik eta inozoena, ahulduko dena emazte adiskideak lehen behako mesfidatia bota orduko, eta lur jo bere herraren bihozkada handien pean.

Baina ez gaitzela goizegi mintza: oraingoz zoriontsu eta libre da, libre bihotzez maitatzeko, gorputzik gabe; beldur izan gabe maitatzeko, minik egin gabe maitatzeko.

Eta mina egina denean –deskubritzen du ez dela mina. Mina da: lotsa, damua, urrikia, higuina. Mina da beraren arimak gizon batekin eginiko traizioa; beraren haurtzaroak etsaiarekin eginikoa. Baina ez da etsairik, oraino *ni* baita, beti *ni*; ni bat berria, baina ene barnatasunetan lo zena eta beste ni honek agerian eman duena, hor, ene aitzinean, erakutsia eta, azkenean, *atsegina*. Bere buruari uko egin beharrik ez du izan emazte bilakatzeko, laxatu baizik ez (bere zola-zolaraino)– soilik izaten utzi. Ez arraildurarik, ez hausturarik, ez zimeltzerik.

Eta hitz hau, laburbilduz:

–O, ni! O, *ni* maitea!

Oi! Emazteak ez du sekula abandonatzen emaztea ahalkegatik edo higuinagatik; guziz bestelako zerbaitengatik edo zerbaitetarako abandonatzen du.

Hasteko, erdi arraileria bat baizik ez da.

–Haurtxo ederra!

–Nahi zenukea bat?

–Bai. Ez. Zure bat bai.

–Baina...

–Irri egiteko da, ordea.

Beste batez, hasperena da.

–Nahi nuke bada...

–Zer?

–Deus ez.

–Bai, bai, badakit...

–Badakizunez...

–Baina zurea...

Isiltasuna.

–Oraino horretan pentsatzen ari zara?

–Zuk hala badiozu.

–Baina zuhaurk diozu eta...

Ez du deusen eskasik, baina sobera du emateko, bere *guzia* du emateko.

–Maitatu nahi zintuzket, neska ttipi –emazte batek erraten duen gisan: –maitatu nahi zintuzket, mutil ttipi. Berriz ere zu. Berriz ere zu bat. Zu bat nihaurk sortua.

Azkenean, oiuhu desesperatua da, biluza, saihe-tsezina:

–Zure haur bat!

Nehoz jinen ez dena. Haren etortzea otoizterik ere ez dena. Galdegin lekiok e Andredena Mariari maitalearen haur bat; galdegin lekiok e Andredena Mariari agure baten haur bat –bidegabekeria bat, mirakulu bat– ez zaio galdegiten erokeria bat. Elkartze bat non haurra, sinpleki, baztertua den. Egoera bat berekin dakarrena haurraren absentsia. Ezin pentsatuzkoa. Guzia, haurra salbu. Errege Handiaren eta kaparearen arteko afari

hartan bezala: guzia, ogia salbu. Egun guzietako ogi handi femeninoa.

Nehoiz ez da baten, gazteenaren, *emazteenaren* desira desesperatua baizik. Emazte zaharrenak ez du haurra-
ren beharrik, hark badu adiskidea bere amatasunerako.

–Zure zara ene adiskidea, zu zara ene jainkoa, zu zara ene guzia.

Baina besteak nahi duena ez da haur gisa maitatua izatea, maitatzeko haur bat baizik.

Eta hasieran *gizonaren* haurrik nahi ez zuenak, azkenean, *emaztearen* haur bat nahiko du. Eta hori ezinezkoa delako partituko da gazteena egun batez, maitekor baina bestearen jelsia buruargi eta ahalgabeak ihiztatua– eta, are, egun batez, enkailatuko da, ontzi hondakin, lehen jinaren besoetan.

(Ene haurra, ene adiskidea, ene guzia, eta –zure ele bikaina, Andere,– ene anaia femeninoa, nehoiz ez: ahizpa. Erran liteke *ahizpa* eleak izitzen dituela, bortsax berrezartzen ahal balitu bezala mundu batean zeinetatik sekulako jalgiak diren.)

Hasteko, zaharrenaren beldurra handiagoa da bestearen desira baino. Erran liteke zaharrena dela gazteenari etsimendua sortzen diona; haren irriñoa

hasperen bihurtzen duena; hasperena, desira; eta desira, obsesio. Zaharrenaren obsesioak du sortzen gazteenaren obsesioa.

–Zu joango zara, zu joango zara, zu joango zara. Enea nahi duzu, lehen jinarena nahiko duzu... Oraino horretan pentsatzen ari zara... Gizon horri so egin diozu, ezta?– zer aita zure haurarentzat! Zoaz bada berarekin, nik ezin baitizut haurrik eman...

Susmo txarrak ditugu oroitarazle; beldurrak, iradokitzaille; obsesioak haragitzen zaizkigu. Gazteak, isilean atxikitzearen bortxaz, ezin du burutik kendu; ez du begirik besoak beterik dituzten emazte gazteentzat baizik. Pentsatzea ere nik egundaino ez dudala bat ukanen! Sekula ez, sekula ez baitut utziko. (Eta une horretan berean uzten du.)

Haurra –hemendik aitzina begirik kenduko ez dion puntu finkoa. Haur gibelarazia berriz agertzen da haren begietara, nola ito bat ur azalera. Itsu egon behar da ez ikusteko.

Eta hasieran *emaztearen* haur bat nahi zuenak, azkenean, edozeinen haur bat nahiko du: hastio duen harena berarena. Jazarlea salbatzaile bilakatua. Adiskidea, etsai. Eta haizea zirimolaka...

Haurra bere hastapena baino aise lehenago hasten da gugan. Badira haurdunaldiak urteak irauten dutenak esperantzan; eternitateak, etsimenduan.

Eta ezkontzen diren adiskide guziak. Eta adiskide horien senarrak, hain alaiak, hain zintzoak, hain hurbilak... Eta pentsatzea ni ere...

Etxean gakotua.

Bizirik ehortzia.

Eta besteak lan egiten du. Aipamenak, susmoak, erreportxuak. Eta gazteak:

–Jada ez nauzu maite?

–Maite zaitut, baina joango zarenez...

Zu joango zara, zu joango zara, zu joango zara.

Partitu baino lehen, gazteak heriotza nahiko du. Gero, heriotza betean, deus jakin gabe, aitzinetik deus gogoetatu gabe, deus pentsatu gabe, bizi sen huts hirukoitzez –gaztetasuna, iraupena, erraiak– bere burua entzungo du sekula huts egin gabeko hitzorduan, irriz eta arrailerian, hiriaren –eta biziaren– beste puntan, nornahirekin: bere adiskideetarik baten senarrarekin, edo aitaren meneko batekin, *emaztea* ez den ber.

Gizona, emaztearen ondotik: zer sinpletasuna, zer ontasuna. Zer zintzotasuna. Zer libertatea! Zer garbitasuna.

Gero, akabantza izango da. Maitalearen hastapena? Maitaleen ibilbidea? Senarraren egonkortasuna?
Haurra izango da.

Alde batera uzten dut ezohiko kasua: ama senik gabeko emaztea.

Alde batera uzten dut orobat kasu arrunta: neskatxa likitsa, senetz edo modaz: plazeraren izaki beti gutiesgarria.

Alde batera uzten dut, halaber, arima penatuaren kasu arraroa, amodioan arima bilatzen duena; beraz emazteari buruz predestinatua.

Eta amoros handia, maitasunean amodioa bilatzen duena, aurkitzen duen lekuan atzematen duena haren ontasuna.

Eta kasu medikoa.

Kasu arruntaz ari naiz, izaki femenino gazte baten kasu natural eta bitalaz: gizonaren beldur da, emazteari buruz doa eta haurra nahi du. Izaki bat zeinak, arrotzaren, indiferentearen, berdin etsai *erakuslearen* eta emazte maitatu *itoarazlearen* artean, azkenean, etsaia hautatzen baitu.

Nahiago duena haur bat ukan maitatu baino.
Nahiago duena bere haurra bere amodioa baino.

Zeren haurra berezko ondasun bat baita; gugan dago amodioa baino lehen, maitalea baino lehen. Haren izateko desira da besoak zabalarazten dizkiguna. Neskaxa bat –iparrekoez ari naiz– beti da gaztegia maitasunerako; nehoiz ez haurrendako. Hamahiru urtetan amets egiten du haurraz.

Berezko ondasun bat eman behar zaiguna. Emazte batzuek hastapenetik maitatzen dute emalea; beste batzuek, azkenean. Are, beste batzuek pairatzen dute azkenean; beste batzuek, jada ez.

Berezko ondasun bat eman behar zaiguna. Ematen ez digunak, kentzen digu.

Eta berriz kausituko dugu besoak beterik, bihotza herraz brokatua hemendik aitzina gaztetako hutsegitetzat joko duen emaztearentzat –eskergabe, maitatzen ez duten emazte guziak bezala; zuzengabe, oraino maitatzen duten guziak bezala.

Ez dute gehiago engainatuko.
